




# MUTUALIA SARIAK

9. EDIZIOA 2022

**MUTUALIA SARIEN 9. edizioa** antolatu du **MUTUALIAK**, betiere **CONFEBASK**, **ADEGI**, **CEBEK**, **SEA** eta **OSALAN** erakundeek laguntzarekin, lan-eremuan segurtasuna eta osasuna sustatzeko eta enpresaren barruan aniztasuna bultzatzeko.

## SARIEN OINARRIAK

### 1. Helburua eta kategoriak

Mutualia Sarien bidez, kategoria bakoitzean, Mutualiako kide diren enpresa eta langile autonomoak aintzatetsi, zabaldu eta sustatu nahi dira, enpresa eta langile horiek nabarmendu direlako laneko arriskuen prebentzioaren arloan ikerketa, garapen teknologikoko edo berrikuntza proiektu bat garatu dutelako, edo aniztasuna kudeatzearen arloan enpresetan egindako ahaleginak eta praktika egokiak direla eta.

**LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BERRIKUNTZAREN SARIRA** aurkeztutako proiektuek enpresetako eta haien inguruko pertsonen antolaketa, lan-baldintzak eta ongizatea hobetzen laguntzeko edozein esku-hartze prebentibo, produktu, sistema, tresna, irakaskuntza-material, soluzio teknologiko, kudeaketa-metodologia edo beste edozein jarduera berritzaile garatu dezakete.

**ENPRESAKO ANIZTASUNAREN SARIRA** aurkeztzen diren proiektuek edozein esku-hartze garatu dezakete, prebentziokoa, prozedurazkoa, metodologikoa eta abar, lan-ingurunean aniztasunaren kudeaketa hobetzen laguntzeko. Proiektu horien xedea izango da lan baldintzak erakundea osatzen duten pertsonen ezaugarrietara egokitzea, jendea ez diskriminatzeko, besteak beste, genero, adin, arraza, hizkuntza edo aniztasun funtzionalagatik.

### 2. Hautagaiak

Hautagaiak aurkezteko unean eta epaimahaiaren erabakia hartzerakoan Mutuallian atxikita dauden enpresa elkartekide eta langile autonomo guztiek izango dute sari hau eskuratzeko aukera.

### 3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea

Aurkeztutako proiektu bakoitzari buruzko dokumentazio hau bidali beharko dute enpresa izangaiek **2022ko martxoaren 15a** baino lehen:

- Aurkeztzen diren kategoriako proiektuaren inprimakia (Prebentzioaren arloko Berrikuntzaren Saria edo Aniztasunaren Saria). Inprimakiak Mutualiaren webgunean deskarga daitezke ([www.mutualia.eus](http://www.mutualia.eus)) edo Mutualiako Prebentzio Aholkularitzan eskatu ([prebentzioa@mutualia.eus](mailto:prebentzioa@mutualia.eus)). Inprimakian xehetasunez deskribatuko da enpresak garatu duen jarduera edo proiektu bereizgarria edo berritzailea.

- Aurkeztutako proiektuaren inguruko informazioa zabaltzeko egokitutako joko dokumentazio guztia.

Dokumentazioa formatu elektronikoan aurkeztuko da, eta hona bidali beharko da: [prebentzioa@mutualia.eus](mailto:prebentzioa@mutualia.eus).

Helarazitako dokumentazioa Mutualiaren esku geldituko da, baldin eta egileak hori eragozten ez badu, desadostasuna berariaz adierazita.

### 4. Hautagaitzen aurkezpen publikoa

Mutualia Sarietarako hautagai finalistek, bi kategorietan, beren proiektuen aurkezpen publikoa egingo dute Mutualiak 2022ko apirilaren 29an, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Bilboko Euskalduna Jauregian egingo duen ekitaldi batean. Ekitaldi horretan proiektuak baloratuko dira, proiektu irabazleak aukeratuko dira eta sariak banatuko dira.

### 5. Saritutako proiektuak aukeratzea

Bi kategorietan, epaimahaiak eta Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Egunean EKITALDIRA bertaratzeko jendeak boto mistoa emango dute. Epaimahai profesionalaren botoak % 60ko balioa izango du eta bozkatzen duen publikoaren botoak % 40koa.

Bi kategorietan, ospe handi aitortua duten entitateetako kideek osatuko dute epaimahaia.

### 6. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BERRIKUNTZA kategorian aurkeztutako hautagaitzak baloratzeko, gehitutako hobekuntzak edo alderdi bereizgarriak, eskuragarritasuna eta beste enpresa batzuetan aplikagarriak izatea aztertuko dira. Enpresak duen ibilbidea hartuko da aintzat, hark izandako ezbehar-tasa eta garatu izan duen prebentzio kudeaketa.

ENPRESAKO ANIZTASUNA kategoriarako aurkeztutako proiektuak baloratzeko, berdintasunaren aldeko praktika egokiak baloratuko dira, bai eta generoa, adina, arraza, hizkuntza edo aniztasun funtzionala eta abar direla-eta pertsonen arteko diskriminazioaren prebentzioaren kudeaketak ere.

Bi kasu horietan, saria aurkezteko egunean proiektua txertatuta, garatuta edo argitaratuta izatea aldeko puntutzat joko da, bai eta horren emailtzak ere.

### 7. Mutualia Sariak banatzeko ekitaldia

2022ko apirilaren 29an, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Egunean, baloratuko dira proiektuak eta erabakiko dira saridunak, Bilboko Euskalduna Jauregian.

Bi kategorietako sari banaketa epaimahai mistoak erabakiak hartu ostean egingo da, eta bi kategorietan saria eskuratzeko duten enpresa edota langile autonomoek eskultura bana jasoko dute, kasu bakoitzean laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan edo aniztasunarenean egindako ahalegina aitortuko duena.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BERRIKUNTZA kategorian irabaziko duten langile eta enpresek Carlos Ciriza artistaren Punto Central [Erdiguneko puntua] izeneko eskultura jasoko dute, enpresek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan egindako ahalegina aitortzen duen artelana, alegia. Kategoria horretako accesitek Punto Central artelana irudikatzen duen Carlos Cirizak berak egindako serigrafia bana jasoko dute.

ENPRESAKO ANIZTASUNA kategorian saritutako langile edo enpresek Paola de Miguel artistaren Vínculo [Lotura] izeneko eskultura bat lortuko dute, bi gizakiren arteko batasuna eta izaera berdina irudikatzen duen obra minimalista, alegia. Kategoria horretako accesitek Vínculo artelana irudikatzen duen Paola de Miguel berak egindako serigrafia bana jasoko dute.

### 8. Datuak babestea

Pertsona fisiko parte-hartzaileek edota parte hartzen duten enpresen harremanetarako kide gisa agertzen diren pertsona fisikoei, sarian parte hartze hutsarekin, baimena ematen dute eurek helarazitako datu pertsonalak fitxategi batean jaso, txertatu, eskuratu eta tratatzeko. Fitxategi horren titularrak Mutualia da, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko mutua, fitxategiaren erantzukizuna duen eta helbidea Bilboko (48009) Henao kaleko 26an duen erakunde gisa, aipatutako lehiaketa kudeatzeko eta hedabideetan, telematikoki barne, iragartzeko helburuarekin, Mutualiaren webgunean argitaratutako oinarri hauen arabera. Datuak konfidentzialak dira, eta Mutualiak baino ezin erabili ditzake. Interesdunek araudiak aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte, eta, edozein kasutan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, mugatzeko, transferitzeko eta haien aurka egiteko eskubideak. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute lehen aipatutako helbidera, nortasun-agiri ofizialaren kopiaekin batera.

Mutualia Sarietan parte hartzen duten enpresetako ordezkariak, hori guztia dela-eta, berariaz onartuko dute beren esku-hartze publikoak edozein bitarteko telematikoren bidez grabatu edota hedatu ahal izatea, eta, ondoren, Mutualiaren edo ekitaldiaren erakunde laguntzaileen webgune korporatiboetan eta hedabideetan argitaratzea. Horrenbestez, berariaz baimena ematen dute euren irudi pertsonala eta datu pertsonalak jasotzeko eta tratatzeko.

### 9. Jabetza intelektuala

Sarietan parte hartzen duten enpresek bidalitako proiektuen aurkezpenak Mutualiak antolatutako Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Egunean ekitaldian proiektatzeko dira. Epaimahai profesionalari enpresa hautagaiak bidalitako dokumentazio osoa helaraziko zaio (inprimakia eta interesgarritzat jotzen den gainerako dokumentazioa), balorazioa egin dezan. Proiektu bakoitzaren laburpena emango zaie ekitaldian parte hartzen dutenei.

Hautagaitza bakoitza defendatzeko erabili den dokumentazioaren eta aurkezpenaren jabetza intelektuala enpresa hautagaiarena izango da beti; Mutualiak ezingo du erreproduzitu alde aurretik enpresak baimenik eman gabe, eta sariak hautatzeko prozesurako soilik erabiliko da.

Mutualia Sarietan parte hartuko dutenak #gureesperientziapartekatua proiektuan parte hartzera gonbidatuko ditu Mutualiak; horren bitartez emango dira ezagutzera proiektu horiek eta horien alderdi garrantzitsuak.

### 10. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak berekin dakar honako oinarri hauek guztiz onartzea. Horietan jaso gabeko edozein gorabehera antolatzaileek ebatziko dute. Edozein zalantza edo kontsultarako, Mutualiaren Prebentzio Aholkularitzarekin kontaktuan jartzeko aukera dago [prebentzioa@mutualia.eus](mailto:prebentzioa@mutualia.eus) helbidean.